

## Kultura

Hamargarren urtebetetzea ospatuko du 24 Ordu  
Digitalean Elorriko film laburren lehiaketak > 11



## Durango jaietan eraso sexistak egon zirela ohartarazi du Txosna Batzordeak

San Fausto jaiekin lotuta, eraso sexisten salaketa judizialik ez da egon, momentuz, Ertzaintzan edo Udaltzaingoan. Baina, Txosna Batzordeak adierazi du, gutxienez, eraso fisiko bat gertatu zela, eta jarrera sexistak ere egon zirela. Ekintza horiek publikoki salatatu ditu ohar baten bidez. > 2

*“Elorrion, nesken futbola asko aldatu da, eta onerako: jokatzeko eran, taldeko balioetan...” > 15*

Elorrio futbol taldeko kapitainak.



## Mañaria jolasen bidez irudikatzen

Zer gura dute umeez? Mañariko Udalak zuzenean egin die galdera, jolasen bidez. Euren nahi eta ametsen arabera, 10.000 euro inbertituko ditu udalak 2016ko aurrekontuan. Partaidetza eredu berria da. > 4

**momotx**  
t a b e r n a



Plateruen plaza, 12  
48200 Durango  
Tel.: 946 811 006

MATERIAL DE CONSTRUCCION  
**MACOBER**

Eraikuntzarako materiala  
**MACOBER**  
Zeramika eta gresa

Eitua industriagunea, 66 BERRIZ  
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es

### Zornotza > 8

Alokabidek eskatutako etxe kaleratzea geldiarazi dute

### Abadiño > 9

Doako TAO sistema ezarriko dute, Trañabarren kalean

### Durango > 2

50.000 euro erabiliko ditu udalak spinning-eko 40 bizikleta erosteko

### Otxandio > 6

Bernaolaren bizitzari errepasoa azaroaren 7ko berbaldean



**Herririk herri****Salaketarik egon ez arren, jaietan eraso sexistak egon dira**

Txosna Batzordeak eraso batzuen berri eman du

**DURANGO** Markel Onaindia San Fausto jaietan ez da indarkeria sexistaren salaketa pertsonalik egon, baina, Txosna Batzordearen ustez, horrek ez du esan gura erasorik egon ez denik. Txosnaguneko balantzea egitean, gutxienez eraso fisiko bat eta jarrera sexistak egon direla adierazi du batzordeak. Azaldu dutenez, mutil batek neska bat jo zuen, baina batzordeko kideek ez zuten lortu neska kontakataz. Gainera, jarrera sexistak adibide bezala, karaoke batean, mutil batek “emakumeak iraintzen dituzten mezuak” botatu zituela esan dute. Erasorik egon ez zutenik, Txosnaguneko erasoen datu ofizialak ezagutu, Aitziber Irigoras alkateak jaiak lasai joan zirela adierazi zuen astelehenean, jaien balorazioa egiteko prentsurrekoan, eta hori

zeuden San Fausto jaiei begira. Feministek, adibidez, manifestazioa burutu zuten jaien hasierako egunean, erasorik ez zutela onartuko aldarrikatzeko. Gainera, Txosna Batzordeak eta udalak erasoen aurrean laguntzeko aholkuak zabaldu zituzten.

**Mutil batek neska bat jo zuen, baina batzordeko kideek ez zuten lortu neska kontakataz**

Ordura arteko erasoen datu ofizialak ezagutu, Aitziber Irigoras alkateak jaiak lasai joan zirela adierazi zuen astelehenean, jaien balorazioa egiteko prentsurrekoan, eta hori



Irailean Emakumeen Mundu Martxari harrera egin zioten feministek.

poztekoa zela esan zuen. Izan ere, momentuz, emakume bakar batek ere ez du salaketarik aurkeztu Udaltzaingoa edota Ertzaintzan.

**Jailetan, partaidetza handia** Erasorik egon ez zuten jailetan parte hartze handia egon zela kontatu zuen Irigorasek. “Egitarau orekatua eta anitza dela

erakusten du partaidetza gora egitea”. Mozorro Egunean gero eta jende gehiago animatzen dela esan zuen Iker Oveja zinegotziak, partaidetza handitzen doan adibidetzat.

Txosnak Landako Gunean ipintzeagatik, marmitako txapelketa eta beste zenbait ekintza Ezkurdira lekualdatu zituzten, eta, Ocejaren ustez, arrakasta

tsuak izan ziren. Aurtun, lehengoz ipini dute Txosnagunea Landakon, eta Ocejak adierazi zuen teknikoki balorazio positiboa egiten dutela. Txosna Batzordekoak hurrengo kultura batzordea gonbidatu dituzte: “Ea Txosna Batzordekoek zer balorazio egiten duten”. Momentuz, txosnetakoek ez dute balorazio publikorik egin.

**50.000 euro erabiliko ditu udalak spinning-eko 40 bizikleta aldatzeko**

Eider Uribe (EH Bildu): “Kirodegiko erabiltzailea naiz, eta luxu gehiegi dago”

**DURANGO M.O.** Durangoko Udalak 50.000 euro erabiliko ditu kiroldegian spinning-eko 40 bizikleta aldatzeko, Durango Kirolak erakunde autonomo soberakinetik hartuta. EAJ, PSE-EE eta PPren botoekin onartu zen ekimena udalbatzarrean, eta EH Bildu eta Herriaren Eskubidea abstenitu egin ziren.

EAJko Goiztidi Diazen esanetan, “herritarren aldeko inte-

resa” dago erosketaren atzean, eta kiroldegia erabiltzaile asko dituela nabarmendu zuen. PSE-EEko Mauricio Garciak azaldu zuen kiroldegiko arduradunek eskatutako beharrezan bat dela. PPko Fran Garatek ere ondo ikusi zuen ekimena.

Bizikleta bakoitzak 1.200 euro inguru balio izatea garestia iruditu zitzaion EH Bilduko Eider Uriberi. “Kirodegiko erabiltzailea naiz, eta luxu gehiegi dago”.

Gainera, AEK-ko ikasle jubilatuei kendutako laguntza berabai hartu zuen; urtean 5.000 euroko gastua zen udalarentzat. Orain, “hamar bider gehiago” bizikletak erosteko erabiltzea kritikatu zuen Uribek. Herriaren Eskubideako Julián Riosen iritziz, “sistema misto” bat topatu behariko litzateke, eta erdiak aldatu gutxi gorabehera. Dena dela, lehentasunak aztertzea komeni dela uste du.

**TTIP akordioarekiko intsumiso egin da udala**

EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak babestu dute

**DURANGO M.O.** Durangoko Udala TTIP akordioarekiko intsumiso egin da, EH Bildu eta Herriaren Eskubidearen botoekin. Merkataritza eta inbertsioen inguruan Europak eta AEBek landutako akordioa da TTIP (ingelesezko sigla), eta merkataritzako zergak kentzea proposatzen du. Julián Riosen iritziz, akordioa “neoliberalismo gaiztoaren” baitan da-

goela, eta tokiko nekazaritza eta merkataritza “desagertze” egongo direla bere eraginez. Aritz Bravok (EH Bildu) azaldu zuen Mexikoko ekonomia okerrera egin duela antzeko akordio baten eruz.

EAJk beste mozio bat aurkeztu zuen, Espainiar Estatuari gardentasuna eskatzeko, eta PSE-EEek babestu zuen. PPren iritziz, akordioak onurak dakartza ekonomiarentzat.

**anboto**  
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta  
Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa:  
946 232 523

Publizitatea:  
946 217 902  
publi@anboto.org

2015eko urriaren 30a,  
13. urtea - 608. alea

**Zuzendaria:**  
Jone Guenetxea Arrinda.  
**Administrazio burua:**  
Itziar Belar Zubizarreta.  
**Administrazioa:**  
Miren Abasolo Txabarri.  
**Publizitatea:**  
Goretti Alonso Armendia  
eta Itxaso Martinez de  
Arenaza Yarza.  
**Erredakzioa:**  
Aitziber Basauri Gandiaga,  
Itsaso Esteban Urtiaga,  
Joseba Derteano Bilbao,  
Markel Onaindia Txabarri,  
Amaia Ugalde Begoña.  
**Maketazioa:**  
Eider Alberdi Bengoa.  
**Zuzentzailea:**  
Mikel Azkarraga Etxegibel.

**Laguntzaileak:**

“Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua”



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du





# San Fausto auzoa eraberritzeko obrak hasi dira, “azkenean”

Astelehenean hasi zituen udalak San Faustoko obrak, eta 1,7 milioi kostako dute



Saneamendua, zerbitzu sareak eta irisgarritasuna hobetuko dituzte San Fauston.

**DURANGO** Markel Onaindia “Azkenean!”. Hori da San Fausto auzoko bizilagunek duten sententzia, auzoa eraberritzeko obrak hasi diren astean.

Gure San Fausto Berria elkarrekin Gorka Perezek azaldu du urteeetan zehar alboratuta sentitu direla, eta “hainbeste urteren ostean”, pozik hartu

duzela obra egiteko proiektua. San Fausto auzoa orain 60 bat urte sortu zen, eta geroztik ez du eboluzio handirik eduki, Faustegoienan egin diren

etxe berriak kenduta. Udalak 1,7 milioi euro erabiliko ditu obra egiteko; besteak beste, saneamendua eta instalazio elektrikoak hobetuko dituzte, eta mugikortasun arazoak dituztenentzat irisgarri bihurtuko dute auzoa. “Arazorik handienak konponduko direla ematen du”, esan du Gorka Perez auzokideak. Hezetasuna, zikinkeria eta arratoiak izan dira urte luzez bizilagunen keza nagusietako batzuk.

## Lurpeko kontainerrak

Lasuen enpresa abadiñarrak garatuko du proiektua, lehiketa bidez udalak bere eskaintza onartu eta gero. Hamalau enpresa aurkeztu ziren, eta Lasuenek lortu zuen punturik gehien. Bere lan-taldeaz aparte, langabe bi kontratatuko ditu enpresak, eta euretako bat auzokoa izango da. Hain zuzen ere, bizilagunen keza eta galderi erantzuteko informatzaile lez egingo du lan San Faustoko langabe horrek.

Hainbat aldaketa ekarriko ditu proiektuak, eta horien artean, lurpeko kontainerrak ezarriko dituzte. Gainera, arratzen kontrako kanpaina ere burutuko dute. Aldaketa horiek argi erakusten dute auzotarrek garbitasunaz zuten

kezka. Guztira, obrak hamalau hileko iraupena edukitzea aurreikusiko dute arduradunek.

Etxe gehienak zaharrak dira auzoan, eta konpondu gura dituenak edota igogailua ipini gura duenak, Eusko Jaurlaritzaren laguntzak edukiko ditu. Baina Perezek gogoratu du au-

“Arazorik handienak konponduko direla ematen du”, esan du Gorka Perez auzokideak

zokide asko zaharrak direla, eta gaitasun ekonomikoengatik, zail ikusten du obrak garatzea.

## Gizarte etxea?

San Fausto auzoan gizarte etxe bat eraikitzeak asmoa duen udalak, bizilagunen urteetako eskariari erantzunez. Kapitanena baserria erosi eta botatzea erabaki zuen, bertan altxatzeko gizarte etxea. Baina egoera ekonomikoak ez du laguntzen, eta proiektua etenda dago. Gorka Perezek esan duenez, baserri hori apropos ikusten dute auzorako erabiltzeko, beheko solairuan nagusientzako gune bat egiteko, eta goian elkarteen zelaia atontzeko.



Udalak 20.000 euro emango ditu emakumeentzako aterpetxe bi laguntzeko.

# Guatemalako eta Kongoko emakumeak lagunduko dituzte

Guatemalan eta Kongon indarkeria sexista sufritu dutenei lagunduko diete

## DURANGO M.O.

Guatemalan eta Kongon indarkeria sexista pairatu duten emakumeak lagunduko ditu Durangoko Udalak. Herrialde horietan indarkeria sufritu duten emakumeei laguntzeko dauden aterpetxe bik jasoko dute laguntza. Hain zuzen ere, Medicus Mundi Bizkaia elkarteari 20.000 euro emango dizkio udalak, elkarte hori baita aterpetxeen proiektuak babesten eta indartzen dabilena.

Joan zen martitzeneko osoko bilkuran onartu zen gaia, aho batez. Lagundutako aterpetxe horietan babesa topatu ahalko dute emakumeek, baina baita laguntza psikologikoa eta lan mundurako prestakuntza ere, Pilar Ríos alkateordeak (PSE-EE) azaldu zuenez.

## Bateginezen diruagaz

Bateginez Gobernu Kanpoko Erakundeak dirua jasotzen zuten udaletik, kooperazio lana

egiteko, eta elkarrekin desegin da, bere hutsuneak utzitako diruagaz onartu da ekimena. Bilkuran, hurrengo urteetan beste GKEak kontuan hartzea eskatu zuen Ion Andoni del Amok (EH Bildu): “Mila GKE eta proiektu daude”. Riosek aitortu zuen hausnarketa behar dela, eta kooperaziorako, herri-tarren inplikazioan ere eragin behar dela, udala dirua ematen duen “kutzazain automatiko” ez bihurtzeko.

**BODEGUILLA**

**TRANA-MATIENA**  
Tel.: 94 681 43 85

**hitz** artekalea, 14 durango  
946 810 776  
liburudenda info@hitzliburudenda.com

#gomendioak

HELDUENTZAT	UME ETA GAZTEENTZAT	MUSIKA
<p><b>AZKUE, BILBOTAR EZEZAGUNA</b> Jurgi Kintana Goiriena (2015)</p>	<p><b>ZESARREN PAPIROA</b> Jean-Yves Ferri &amp; Didier Conrad (2015)</p>	<p><b>GURE EROYAK</b> Bi bala (2015)</p>

**Arrike**  
Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango  
Tel.: 946 201 893  
Faxa: 946 816 403



# Herriko umeen iritzi bereziagaz Mañaria koloreztatzen hasi dira

Udal aurrekontuko 10.000 eurogaz zer egin erabakitzen hasi dira umeak



Tailerrean parte hartu zuten umeak, Urtxintxako kideak eta Endika Jaio eta Ismene Uriarte udal ordezkariak.

**MAÑARIA** Markel Onaindia Proiektua txikia da, taldea txikia, eta herria ere txikia. Mañarian, herriko hamar ume udal aurrekontuko 10.000 eurogaz zer egin erabakitzen hasi dira. Baina, kantitatez txikia izan arren, egitasmoak balio handia eduki dezake herriko zerbitzuak antolatzeari begira, eta, gainera, etorkizuneko partaidetza erduetarako esperientzia bat izan daiteke. Joan zen barikuan egin zuten lehenengo tailerra, jolasa oinarri hartuta; umeak, mozo-rotuta, euren ametsak gauzatzeko *superheroi* bihurtu ziren, eta iritzi berezi horregaz, herria koloreztatzen hasi dira.

Urtxintxa aisialdi elkarteko kideek prestatu zuten dinamika. Lehenengo, herrian zer egin nahi zuten pentsatzea eskatu

zieten, eta gero, ideia hori marraztea edo plastilinez lantzea. Beñatek skate parke bat marraztu zuen, eta tirolina bat Uritzek: “Durangon ibili nintzen tirolinan, eta herrian bat ipintzea gura dut”. Eskulanak egitea irudikatu zuen Intzak, eta igerileku bategaz edo arboletan eginiko etxeekin amestu zuten beste batzuek. Ideia horiek guztiak udaleko batzordean aztertuko dituzte teknikariekin, eta hurrengo barikuan umeekin egingo duten bigarren tailerrean ideien bidegarritasuna azalduko diete.

## “Parte hartzen ikasi”

EH Bilduko Endika Jaio alkate denetik, aurrekontuak era parte-hartzailean landu izan dituzte, eta, aurten, umeen iritzia ere zuzenean jakitea erabaki

dute. Gainera, ekimenak asmo pedagogikoa ere badu, Jaioren arabera: “Umeak garrantzitsu sentitzea gura dugu, eta ilusioa egingo diela uste dugu. Parte hartzea garrantzitsua da guretzat, baina parte hartzen ikasi egin behar da. Demokrazia parte-hartzailearen kultura hezi gura ditugu umeak”.

## Ondorioak, abenduan

Urtero lez, udal arduradunek herritarren proposamenak ere jaso dituzte, inkesta bidez, eta abenduaren 12an aztertuko dituzte batzar zabal batean. Edozelan ere, umeak dira aurtengo protagonistak, eta prozesuan parte hartzen dabilzan *superheroi*ek herritarren aurrean aurkeztuko dituzte euren ondorioak, abenduaren 18an.

**Jolasaren bidez, umeen iritzia ezagutzea lortu duzue tailerrean.**

Askotan uste dugu umeak ez direla, arlo batzuetan, iritzia emateko kapaz, aurrekontuetan esaterako. Baina euren erara moldatuz gero, oso ideia onak irteten dira. Saio ugarritan lantzen joan, eta gauza egingarriak izaten dira.

**Horrelako esperientzia bat garatzen duzuen lehen aldida, ezta?**

Udalekuetan eta ludoteketan parte-hartzea landu dugu, baina aurrekontu parte-hartzaileak ez ditugu inoiz egin. Oso leku gutxitan egin dira, gainera, horrelako esperientziak. Guretzat berria da hau, baina beste esparruetako metodologiak antzerakoak dira.

**Zelan baloratzen duzu lehenengo tailerra?**

Oso ondo baloratzen dugu. Haur pila etorri da, eta, gainera, ideiak etxetik ekarri dituzte. Bazekiten zertara zetozen. Banaka batzuk lanean ibili dira hasieran, baina besteei kontatzerakoan, beste ideia batzuk ere sortu dira, eta oso polita izan da.

**Baina umeek tailerretan eskatzen duten guztia ezingo da bete.**

Baliteke igerilekua ez lortzea Mañarian, baina ur txorroak ipini, eta igerilekuen helburua lortuz gero... Hori guztia hurrengo tailerrean ikusiko da. Arkitektoak eta alkateak-eta ideiak aztertuko dituzte, eta hurrengo saioan zehaztu beharko dugu.

# ‘Munduko paisaiak’ ezagutzeko gonbita

Azaroaren 10era arte luzatuko da eraturako egitaraua

## IURRETA A.B.

Kulturantzitasuna ardatz hartuta, ekitaldi sorta antolatu dute datozen egunetarako. ‘Munduko Paisaiak’ izenburupean hizaldiak, umeentzako tailerrak, zine-kluba, ipuin kontalariak edo emakumeen literatur tailerra batu dituzte, besteak beste. Azaroaren 10era luzatuko den egitaraua Ibarretxe kultur etxean garatuko da.

Familientzako munduko jolasen tailerra egongo da, gaur, 17:00etan. Ondoren, 20:00etan, helduentzako ipuin kontalaria ere bai: *La flor que palpita* hartuko du hizpide Yoshi Hiokik

(Japonia). *Mundubicyclette* pelikula eskainiko dute, azaroaren 4an, 19:00etan, eskainiko duten zine-klubean; azaroaren 6an, berriz, *Around the world* (Kids&Us) haurrentzako ipuin kontaketa saioa hasiko da, 18:00etan, haur liburutegian.

## Mendi irteera

Iurreta ezagutu mendi ibilaldia antolatu dute azaroaren 8rako, eta literatur solasaldiak 10erako. Era berean, azaroaren 2an eta 16an, *Emakume afrikarren literatura* emakumeen literatur tailerra garatuko da; 18:15etik 20:00etara izango da hori.

# Herriko tabernaren 23. urteurrena ospatuko dute

Egun osoko egitaraua prestatu dute, biharko jairako

## ZALDIBAR I. E.

*23 urte libre izaten* lemagaz, Castet herriko tabernaren urteurrena ospatzeko egitaraua prestatu dute, urriaren 31rako, Zaldibarren. Txintxaur Aisialdi taldearen eskutik, umeendako jolasak antolatu dituzte, 11:00etarako, Garikoitz Sarriugarte eta Beñat Ugartetxea bertsolarien saioa, 13:00etarako, eta bazkari herrikoa, 14:30erako. “Castet-ek libre eta zabalik” behar duela aldarrikatze, kazerolada egingo dute 17:30ean, eta, gauean, Alus DJaren emaldian elkartuko dira.

Urteurrena iragartzeko, bideo bat zabaldu dute sarean, taberna horren historiari eta herriaren bizitzan izan duen garrantziari erreferentzia eginenez. “Ez diegu utziko taberna lapurtzen”, diote bideo horretan hainbat herritarrek: “Bakoitzak ahal duen neurrian, milaka bizipen izan dugun etxea defendatuko dugu”.

Herriko tabernei ETA finantzatzea egozten dien 35/02 sumarioan oinarrituta, 107 herriko taberna bahitzea agindu zuten Auzitegi Nazionalak, tartean, Zaldibarko Castet.

# Estresari aurre egiteko ikastaroa jubilatuenen

Klaseak azaroko eguen denetan eta abenduko lehenengoan izango dira; izen-ematea doakoa da

## IZURTZA J.Derteano

Durungaldeko Amankomunazgoko pertsona nagusien dinamizazio sailak ikastaro berri bat jarriko du martxan, Izurtzako jubilatuen etxean. Oraingoan, antsietate eta estres egoerak kudeatzeko gakoak eskainiko ditu gaian aditua den pertsona batek. Apurka, pilatzen joaten dira arazoek sortzen dituzten ezinegon eta buruhausteak, eta horiei aurre egiteko jarrerak landuko dituzte, besteak beste.

Ikastaroak bost klase izango ditu guztira. Lehenengo azaroaren 5ean izango da, datorren eguenean, 17:00etatik 18:30era. Handik aurrera, azaroko eguen denetan zein abenduko lehenengoan batuko dira, ordu berean.

Parte hartzeko interesa dutenek Erdoitzako Ama jubilatuen etxean egin dezakete izen-ematea. Ez dago ezer ordaindu beharrik, eta ikastaroa doakoa izango da.



**Aiora Azagirre**  
Mallabia, 1979

**Duela urte batzuk Francesco Tonucci pedagogoa italiarra Euskal Herrira etorri zen, eta gizartearen umeen parte-hartzea sustatzeko filosofia zabaldu zuen. Eragina eduki zuen instituzio eta eragileen artean. Urtxintxa elkarte horrelako jarduerak bultzatzen dabil; Aiora Azagirre da Mañariko prozesua gidatzen dabilenetako bat.**



· *Etorri ikustera* ·



**ZARATE ELEXPE**  
ERAGILEAK

Iurretan, Durangon eta Elorrion aukera oso onak!



*Durangoko herrigunean*



*Energia-eraginkortasun  
handiko etxebizitzak*



*Hiriko txaletak*



*Oiz mendira begiratokiak*




*Leku zabalak*

**[www.zarateyexpe.com](http://www.zarateyexpe.com)**

Bixente Kapanaga, 19

Iurreta - Bizkaia

946 816 673

 Zarate eta Elexpe Eragileak SL.



# Bernaolaren bizitzari errebasoa azaroaren 7ko hitzaldi-solasaldian

Carmelo Bernaola musika konposatzailearen bizitza eta Otxandio sorterriagaz zuen lotura aztertuko dute

**OTXANDIO** J.Derteano Carmelo Bernaola (1929-2002) musika konposatzailea XX. mendearen bigarren erdian Es-

tatu mailan izan zen autorerik inportanteenetakotzat jotzen dute adituek. Umetan joan zen Otxandiotik familiagaz, baina

bere sorterriari txoko berezia gorde zion beti oroimenean. Musikologian doktore diren aditu bik Bernaolaren bizitzaren

alderdi hori zein beste batzuk berberak izango dituzte, azaroaren 7an, 19:00etan, Otxandioko kultur etxean eskainiko duten hitzaldi-solasaldian.

Daniel Morok (1983, Oviedo) Bernaolaren obraren eta eraginaren gaineko tesi doktrala egin du, eta tesi horretako zuzendaria Itziar Larrinaga izan da (Amurrio, 1976, Otxandion bizi da). Antzeko egiturari jarraituko dio hitzaldiak: Larrinagaren gidaritzapean, Morok Bernaolaren bizitzari errebasoa egingo dio. Hitzaldiaren zurruntasunetik irteteko antolatuko dute hitzaldi-solasaldi formatuan.

Aurreko egun bietan, azaroaren 5ean eta 6an, beste hitzaldi bana eskainiko ditu Morok, Gasteizen eta Donostian. Batik batik, Bernaolaren konposizioetan eta

sormen tekniketari zentratuko da. Otxandioko tonu dibulgatzaileagoa eta entretenigarriagoa izango du. Bernaolak zazpi urteagaz utzi zuen Otxandio, gurasoak Burgosera bizitzera joan zirenean. Ondoren, bere bizitzako urte asko Madrilen eman zituen. Hala ere, Otxandio sorterria presente izan zuen beti, eta baita euskara eta euskal koru tradizionala ere. Hartuekin horiei buruz jardungo dute, besteak beste.

**50 urteko sormen lan sakona** Bernaolak musikari egindako ekarpena zabala eta sakona izan zen. 82 filmetako soinu bandak konposatu zituen, eta teatrorara eta telebistara (*Verano Azul* tele-saileko soinu banda, esaterako) ere bideratu zuen bere sortzeko gaitasuna. Beste makina bat musika pieza ere sortu zituen 50 urtean zehar.

Bere ibilbide luzean jaso zituen hamaika sarien artean daude Arte Ederretako Urrezko Domina, 1987an, eta Goya sari bat Pasodoble filmeko soinu bandagatik, 1989an.



Bernaola 51. belaunaldiko autorerik garrantzitsuenetakoa izan zen.

## Azaroko ekitaldi batek Urigoitia gogoratuko du

Udalean zinegotzi izandakoen babesak proposamenak

**OTXANDIO** J.D.

Azaroan zehar, Lutxi Urigoitia gogoratzeko ekitaldi bat egingo dute Otxandion. Oraindik eguna erabaki barik dago. Azaroaren 10a biktimen oroimenerako eguna da, baina martitzena denez, ez zaie egunik aipatzeko irudiz udal ordezkariari. Beraz, seguruenik, astebururen bat aukeratu dute.

Ekitaldia egitea erabaki au-

rretik, horren gaineko adostasunik eta babesik zabalena lortzen saiatu da udala. Horretarako, 1987tik hona (urte horretan hil zuten Lutxi) Otxandioko udalean zinegotzi izan direnekin batzarrak deitu dituzte, asteon. Euskadiko Ezkerrako, EAJko eta Ezker Abertzaleko 50 bat zinegotzi ohiri luzatu diete gonbidapena, gutun bidez. Horietatik erdiak inguru agertu

dira, astelehenetik eguaztenera alderdika banatuta egin dituzten batzarretara. Testu bateratu bat adostea, balizko ekitaldiaren formatua eztabaidatzea eta aurrera begira Urigoitiaren memoria lantzeko zer egin daitekeen hausnartzea dira mahai gainean jarritako gaiak. Gaur egungo udalbatzarra osatzen duten EH Bildu zein EAJko ordezkariak parte hartu dute batzarretan, gidari lana egiteko.

Urtzi Armendariz alkateak batzarren balorazio "oso ona" egin du: "Gidoi bat adostu dugu, eta Lutxiri gertatu gogoratzeko, azaroan zehar, ekitaldi bat egiteko asmoa dugu, horretarako babesak jaso dugulako".



Joan zen asteko udalbatzarren eman zuten astean zeharreko batzarren berri.

## Idoia Buruaga alkateak uko egin dio AHTaren aktak sinatzeari

Martitzenean zeukan udalak aktak sinatzeko hitzordua, baina alkatea ez zen agertu

**ELORRIO** Markel Onaindia Elorrioren, Abiadura Handiko Trenaren obraren lau zati dauka. Horietako batean obra egin da dago, eta beste hiruren alegazio epea amaituta dago. Hainbat lurjabe eta udal lurrak desjabetzeko aktak sinatzera deituta egon dira, eta udalak uko egin dio aktak sinatzeari. Martitzenean zuen hitzordua udalak, baina ez agertzea erabaki zuen Idoia Buruaga alkateak. Legearen arabera, aktak, desjabetuko

dira lurretan bertan sinatu behar dira, eta arrazoi hori erabili du Buruagak hitzordua ez joateko. EH Bilduko gobernu taldeak adierazi du ez duela "erraztasunik eskainiko" prozedura horietan, eta hala azaldu ziela joan zen astean zati horietako kaltetuei, eurekin eginiko batzarrean.

Gainera, udalak jarraipen batzorde bat sortuko du, "obren jarraipen zorrotza egin eta kaltetuei laguntza tekniko zein ju-

ridikoa eskaintzeko asmoagaz". Bertan, ordezkari politikoek, kaltetuek eta aholkulariek parte hartuko dute.

Buruagak esan du Elorriok "modu oso zuzenean" pairatuko dituela obra horien ondorioak, batez ere Iguria eta Aidazu azoetan. Alkateak gogoratu du 2007an eginiko herri galdeketa AHTaren proiektuaren aurkako iritzia eman zutela herritar askok, 2.129 herritarrek hain zuzen ere.

## Gobernuaren gestioa kritikatu du EAJk

Buruagak dio EAJren jarrerak "tristetuen egiten" duela

**ELORRIO** M.O.

EAJk zorrotz hasi du oposizioa, eta kritikatu egin du EH Bildu lehenean hileotan eginiko gestioa. Idoia Buruaga alkateak uste du "herritarrek alderdien arteko tirabirak nazkatuta" daudela.

EAJko Joseba Mujikaren iritzian, "desgobernua eta jarduerak eza" dira nagusi Elorrioren. Hori esateko adibide lez, batzorde bi oraindik batu ere ez direla egin salatu du, Parte-hartzeko

eta Turismokoa, hain zuzen. Gainera, dekretu bidez gobernatzen dela dio: "Ez da gobernatzeko estilo gardena".

Buruagaren esanetan, jeltzaileen jarrerak "tristetuen egiten" du: "Elorrioko EAJk, alkate-tza galdu duenetik, gurekiko hitz iraingarriak baino ez ditu erabili". EH Bildu lanean badabilela esan du: "Batzordea deitu ez arren, gure eguneroko kudeaketa parte-hartzean oinarritzen da".

# OSASUN GIDA

## FISIOTERAPIA

**Zainduz**

**FISIOTERAPIA  
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea,  
behea eskuma  
48220 MATIENA-ABADIÑO

Tel.: 944 657 132 - 686 906 374

RPS: 119/13

## PSIKOLOGIA

**JON ARRUABARRENA**

PSIKOLOGO KLINIKOA  
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Ansietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 - DURANGO  
jon@psikologo.biz - www.psicologo.biz

Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

RPS: 62/11

## PEDAGOGIA

**UMEAREN  
GARAPENERAKO  
ZENTROA**

Laguntza goiztiarra, psikomotritzitatea,  
fisioterapia, logopedia

Juan Olazarán, 1 behea  
48200 DURANGO

Tel.: 944 668 370 - 615 782 090

RPS: 63/63

## PODOLOGIA

**PODOLOGIA  
KLINIKA**

**GOIATZ MURUA  
PODOLOGOIA**

**AINHOA ELORZA  
PODOLOGOIA**

Kiropodia, onikopatia, alterazio  
dermatologikoak eta ibilerako alterazioak

Monagotorre, 4 - behea  
48200 DURANGO

Tel.: 946 203 630

RPS: 148/13

## ESTETIKA

**AGIRRE KLINIKA**  
MEDIKUNTZA ESTETIKOIA

www.medicinaesteticadurango.com

**Laser berria:**

Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa,  
Laserra: depilazioa (prezio bereziak), barizeak...  
Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6  
48200 DURANGO

Tel.: 946 810 387

RPS: 16/09

## OPTIKA

**keinu** optometria zentroa

Nala Zabala Azumendi  
11587 kol. zk.

- Optometrian teknika aintzindariak.
- Kontaktologia.
- Haurren ikusmena.
- Ikusmen terapia.
- Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia.
- SENA estimulazio neuroauditiboa.

Arkaraz 3  
48240 Berriz  
tel: 946225099

www.keinuoptometriazentroa.com

RPS: 162/13

## ODONTOLOGIA

**clínica dental hartzklinika**

**B. UNAMUNZAGA  
E. ETXEBARRIA**

ODONTOLOGIA OROKORRA  
ETA ESPEZIALIZATUA

Muruetatorre, 2C - behea  
48200 DURANGO

uecdental@gmail.com

Tel.: 946 819 951 Mug.: 717 194 454

RPS: 145/13

**J.L. URRETA ZABALO**

MEDIKU ESTOMATOLOGOIA  
IMQ, PADI (umeen hartz programak)  
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.  
48200 DURANGO

Tel.: 946 812 200

RPS: 112/13

 **Profesional onenak zure zerbitzura!**





Astelehen goizean, Ogenbarrena kalean etxe kaleratzea gauzatu behar zen eraikinaren atarian egindako protesta ekitaldia.

## Alokabidek eskatutako etxe kaleratzea bertan behera, oraingoz

Ogenbarrena kaleko zornotzar bati eragingo zion etxe kaleratzeak

**ZORNOTZA J. D.**

Kaleratzerik Ez plataformak kontzentrazio-protesta ekitaldia deitu zuen, astelehen goizean, Ogenbarrena 4 kaleko eraikin baten atarian. 33 urteko zornotzar bati eragingo zion etxe kaleratzea salatzea zuten helburu. Ertzainak, bake-epaitegiko ordezkaria... denak bertaratu ziren, baina, azkenean, etxe kaleratzea bertan behera utzi zuten, behin behinean.

Ogenbarrena kalean 60 bat

etxe bitza sozial daude, sei ataritan banatuta. Etxe kaleratzea eman behar zen bizilekua Alokabidek kudeatzen du, eta "era-kunde horrek eskatu zuen etxe kaleratzea", Hiri Ekimeneko Alba Gutierrez zinegotziak argitu duenez. Alokabide alokairu babestua kudeatzen duen Eusko Jaurlaritzaren sozietate publikoa da.

Kaleratzea aurreikusita zegoen goiz berean, udaleko Bozeramaile Batzordeko ohiko ba-

tzarra egin zuten. Gaia tratatu, eta erabaki bi hartu zituzten: kaleratze arriskuan dagoen gizona Gizarte Zerbitzuetara bideratzea, eta Alokabideren kudeaketaren gaineko batzorde monografiko bat egitea.

Bestalde, STOP Desahucios plataformak mozio bat aurkeztuzko du EH Bilduren bidez, udalbatzarrean bozkatu dezaten. Mozioak etxe kaleratzeen kontrako hainbat konpromiso hartzea eskatzen du.

## Hezurak Uriguenenak direla baieztatu dute DNA probek

**ZORNOTZA J. D.**

Abuztu amaieran, Gerra Zibilean hildako pertsona baten hezurak aurkitu zituzten Mendatan —Marmiz auzoan— egiten ari ziren indusketa eta prospekzioetan. Pedro Uriguen zornotzarrarenak izan zitezkeela uste zen. DNA azterketak egin zituzten, segurtatzeko, eta emaitzek susmoa baieztatu du-

te: Pedro Uriguenenak dira hezurak. Halaxe jakinarazi diete senitartekoei. Hezurak laster jasoko dituztela adierazi dute senitartekoei, eta, horren ostean, Zornotzako kanposatuan, bere familiartekoein batera ehortziko dituztela.

Senitartekoen laster jasoko dituzte hezurak, eta Zornotzako kanposantuan ehortziko dituzte

Pedro Uriguen Otxandioko batailoian ibili zen Gerra Zibilean. Senitartekoen beti uste izan dute Uriguenen hezurak aurkitu zituzten tokian ehortzita zegoela, ahozko hainbat testigantzagatik, eta gurutze batek gogoratzen zuelako tokia.

**SEI HANKAKO MAHAIA**

**GOIZTIDI DIAZ**  
EAJ



**Maitasun politikoak**

Baziren behin Udal Hauteskunde batzuk. Udabarriaren bihotzean bozketa burutu, eta emaitzaren arabera eratu egin zian gure Uriko Udalbatza barria. Bertan, EAJ, EHBildu, Herriaren Eskubidea, PSE eta PP batu ziren. Hasi ziren Udal Gobernu barria eratzeko negoziazioak, eta, egun batzuen buruan, EAJk eta PSEk alkarren arteko akordioa lortu eben, adostasun hori jendaurrean adieraziz. Eta betikoei betiko kritikak jaurti ebezan. Alabaina, ez zian izan "maitemintze politikoaren" adierazpen bakarra. Sortua zian, loratua, beste amodio politiko bat.

Ez zan erraza lotura barri hori isilpean iraunaraztea. Eta, bikote barriak zera erabaki eban: arerioa finkatu, eta erasoari ekin behar jakon, publikoaren arreta beste inora bideratzeko. Horretara sortu ziren liberatuen soldatei buruzko polemika antzua (batez be norberak proposatutako zenbatekoa eta kobratutakoa ez datozenean bat), mozio zentzunbakoak, prentsaurreko demagokiak etab. Aitzakiak aitzaki, eta, denborak aurrera egin ahala, edozein bikoteri gertatzen jakon moduan, bi talde politiko horiek euren harremana ofizial bihurtu nahi izan dabe, eta horra hor Amankomunazgoko akordioa. Are gehiago, azken albisteen arabera, bien arteko harremanak errotu eta gure Udalleritik haratago heldu izan dira. Argazki eta guzti. Zorionak, bikote!

## Gure Esku Dagok 'Eskura' prozesuaz informatuko du

**DURANGALDEA M. O.**

Erabakitze eskubidearen alde lan egiten duen Gure Esku Dago mugimendua pauso berriak ematen dabil. Durangotik Iruñerako giza-katearen eta futbol estadioetako ekitaldien ostean, hausnarketarako *Eskura* prozesua ipini du martxan, eta

azaroaren 21ean batzar nagusia egingo dute. Berriz martitzen egin zuten batzarra, eta Abadiñon eta Elorrioren emango dute informazioa.

Abadiñon 12:00etan elkarteko deia egin diete herritarrei, Txanporta kultur etxean. Hausnarketa prozesuaren txostena aurkeztuko dute, eta gero, azaroaren 9ra arte, ekarpenak egiteko aukera emango dute.

Elorrioren, udaletxe atarian egongo dira 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara, informazioa eskaintzen.

## Soldata aldaketez berba egitea ez du ulertzen EAJk


**DURANGALDEA M. O.**

Aitor Lopez Amankomunazgoko presidenteak soldata bajatu du, lehengo 54.000 euro gordinetatik 48.000ra. Gainera, kopuru berri horretatik, 6.000 euro EH Bilduri dohaintzan emango dizkio. Herriaren Eskubideak babestu egin du beherapena, eta

EAJ eta Abadiñoko Indepedienteak abstenitu egin dira.

EAJri ez zaio gustatu prentsan soldatez berba egitea; "ez dugu ulertzen", esan zuen Goiztidi Diazek. Bere arabera, alderdiari emandako dirua beherapen lez saldu du EH Bilduk: "Kantitate hori ez da soldataren beherapen bat, diruagaz berak egingo duen zerbait baizik".

Kritiko azaldu zen Aiko Antonio Serrano: "EH Bilduk gaiaz daukan sentsibilitatea ikusita, harritzen nau beherapena soilik 6.000 eurokoa izateak".



Hontza Extrem abentura parkera Otxandion dago.

## Marixurrike 10-16 urte arteko gazteen aisialdi eskaintza biziberritzen hasi da

Domekan, Otxandioko Hontza Extrem abentura parkera irteera antolatu dute

**ATXONDO J. Derteano**

Marixurrike aisialdi taldea gogoeta prozesu batean murgilduta dago. 10-16 urte arteko atxondar gazteei zuzendutako aisialdi eskaintza diseinatzen ari dira. Orain urte bi egin zuten lehen saiakera, eta, apurka,

indarra galdu zuen. Orain, bigarren ahalegin sendo bat egiteko prest daude: "Adin horretako gazteek ez dute aisialdi eskaintzarik herrian, eta eremu hori biziberritzeko ahalegina egin gura dugu", dio Maialen Magu-nagoitia Marixurrikeko kideak.

Plangintza diseinatzen dabiltzan bitartean, ekintza zehatzak prestatu dituzte. Domekan, Otxandioko Hontza Extrem parkera joango dira. Autobusa 10:30ean irtengo da plazatik. Izen-ematea gaur ere egin daiteke: [marixurrike@hotmail.com](mailto:marixurrike@hotmail.com).



# Trañabarrenen doako TAO sistema ipiniko dute

Abadiñoako Independentteek eta EAJk babestu zuten aparkamendua arautzeko ordenantza berria



Denden ordutegian, gehienez ordubetez utzi ahalko dira autoak aparkatuta.

**ABADIÑO** Itsaso Esteban Aparkatze kontrolatuko sistema berria 2016 urte hasieran ezarriko du Udalak, Taberna Zarra paretik eta Erezena kalearen bigurutzetarako tartean. Aste-gunetan, eta denden ordutegian (09:00-13:00 eta 16:00-20:00), au-

toak ordubete baino gehiagor aparkatuta egotea galaraziko du martitzenean onartu zuten ordenantzak. Eguerdian, gauez, eta asteburuetan, berriz, TAO ez da martxan egongo.

Aparkatzeagatik ez da ordaindu beharrik izango, baina baimendutako denbora baino luzeago aparkatutakoek 20 euroko isuna jasoko dute (10eko isuna 24 ordutan ordaindu ezker).

Kale horretara erostetarako egitera joaten den jendearena omen dira han aparkatuta egoten diren auto asko, eta, neurri honez, txandakatzea areagotzea dela helburua azpimarratu du gobernu taldeak. Eta autoa txarto aparkatuta uzten dutenek eragiten dituzten zirkulazio arazoak ekiditea ere bai.

Gobernu taldeko Abadiñoako Independentteak eta EAJk bozkatu zuten aparkamendua arautzeko udal ordenantza berri honen alde. "Traña-Matienan aparkalekuekin dagoen arazoaren azterketa zabalago" baten falta kritikatu, eta abstenitu egin zen, aldiz, EH Bildu.

## Lapitteko ur gordailua berritzeko proiektua adjudikatu du udalak

Udalak 35.000 euroko obra egingo du ur gordailuan

**GARAI M. O.** Lapitteko ur gordailua berrituko du udalak, eta aste honetan bertan adjudikatu du obra. 2015eko aurrekontuko 35.000 euro erabiliko ditu lanak finan-

tzatzeko; edozelan ere, Eusko Jaurlaritzak gaiagaz lotutako diru-laguntza bat sortu du, eta Garaiko Udalak eskatu du dagoeneko. Erantzuna hile batzuetara edukiko dute.

**Eraginik ez** Obra, urtea amaitu aurretik burura eramateko asmoa dute, eta udalaren arabera, auzokideei ez die eragingo. Uneren batean, ura moztu beharko da, baina mozketa horiek ahalik eta txikiak izaten saiatuko direla esan dute.

### Astinduz...

Amaitzeaz dagoen hilabete honetan, eskualdeko argazki historikoei zein mapei begirada egiteko aukera izan dugu Gerediaga elkartearen urteurrena dela eta. 50 urte ez baitira urtero ospatzen! Sorrerako dokumentuan adierazten zenez, helburu nagusietakoa Durangoko Merinaldearen iragan historikoa berreskuratzea zen. 1967an "Gerediagarrek" adarren arabera antolatzea erabaki zutenean, "Iturriza" izena hartu zuen Historia sekzioak. Eta horretan ibili gara asteazkeneko, "Iturriza", "Kirikiño" edo "Baserri" sekzioak uztartuz, Durangaldeko Historia astinduz. Eskualdeko adituak baliatuz, Durangaldea ikuspuntu desberdinetatik ezagutzeko aukera izan dugu. Erdi Arotik XXI. mendera "Durangoko lurretan" azken urteetan egin diren indusketak izan genituen ber-

bagai lehenengoan. XX. mende hasierako Berrizera gerturatu ginen gero, Margarita Maturanaren eskutik munduan zehar bidaiatuz. Tamalez, Errioxaren eta Durangaldearen arteko harremanak kajoian gordeta gelditu dira. Hala ere, hutsune hori betetzeko, Durangaldeko toponimiari errepaso egitea erabaki genuen, baita lortu ere. Amaitzeko, herenegun, baso etxearen garrantziak aritu ginen. Baskoniako historiari errepaso egin genion, oinarritzko iturritik abiatuta. Hirurogeiko hamarkadako helburu berdinekin, Durangerriko iraganean murgildu gara, orduko asmoek bizirik diraute oraindik. Urteurrenaren zurrunbiloan gauden honetan, garai berrietara egokituz, aurrera begira jarri behar gara. Bide horretan Zainduz, Ikertuz eta Zabalduz. Betiere historia astinduz!

Jon Ander Ramos historialaria (Durango)

## Interneten nabigatzeko ikastaroa azaroan

**BERRIZ A. U.**

Azaroaren 9tik 27ra, interneten murgiltzeko oinarritzko ikastaroa eskainiko dute Berrizen. Kurtsoa emateko, talde bi egingo dituzte, hizkuntzaren arabera: euskarazko taldeak 18:30etik 20:30era jasoko du ikastaroa, eta gaztelaniazkoak, 16:30etik 18:30era.

Ikastaroan izena emateko azken eguna azaroaren 3a izango da. Kurtsoa doakoa da, eta kultur etxera jo behar da izena emateko. Informazio gehiago eskuratzeko ere, kultur etxera bertara joan daiteke, edo 94 682 78 60 telefono zenbakira deitu.

## Autoestimua lantzeko ikastaroa

**MALLABIA J. G.**

Mallabiko Udalak, III. Berritasun Planaren barruan, Autoestimua eta adimen emozionala ikastaroa jarri du martxan. Lehenengo saioa joan zen eguaztenean egin zuten, eta azaroaren 4an, 11n eta 18an ere batuko dira Kontzejuzarran. Ordutegia 14:30etik 15:50era izango da. Ikastaroaren helburua autoestimua indartzea da, auto-onarpenaren eta helburu betegarrien bidez. Era berean, norberaren emozioak identifikatu gura dituzte eraldaketarako tresna legez.

## > DURANGALDEA ASTEON

### Genero indarkeria eta legea berbagai

**DURANGO >** Zapatu goizean, bortizkeria sexistari aurre egiteko, legeek duten paperaz arituko dira Andragunean. Andreak-ek antolatuta, 10:00etatik 13:00etara, tailerra egingo dute, Maria Naredo abokatuarekin. Naredok genero indarkeriaren aurkako legerari buruzko balorazioa egingo du.

### Lapurreta Txoko tabernan

**ELORRIO >** Eguaztentean eguerako gauean lapurreta egin zuten Elorrioko Txoko tabernan. Pertsiana apurtu, eta atea bortxatuta sartu ziren taberna barrura. Lapurrek telebista, musika ekipoa eta txanpon-makinako dirua eroan zuten. Ertzaintza gertatutakoa ikeretzen dabil.

### Asiako liztorrek habiak egin dituzte

**DURANGALDEA >** Suhiltzaileek Asiako liztorren habiak kendu zituzten, martitzenean, Durangoko Landako Eskolan eta Zornotzako Santa Ana auzoan. Suhiltzaileek azaldu zuten, Landakoko habia astelehenean kendu nahi zuten, baina momentu berean sortu zen sute batek irteera eragotzi zien.

## **Iritzia**

### Jai herrikoi parekide batzuen alde!

Jai-giroa ez da emakumeon kontrako eraso sexistez libratzen, ez. Beti ikusgarriak ez diren arren, egon egoten dira. Zenbaitetan, kostatu egiten zaigu erreakzionatzea, ez dugulako gertaturikoa erasotzat identifikatzen. Aldiz, horrek ez du esan nahi gertatzen ez direnik. Jaietan, emakume baten dantza egiteko espazioari betoa jartzan dion jarrera, eraso sexista bat da. Eta salatu egiten dugu. Lagunekin karaoke batean ondo pasatzen ari garela, mutil batek, mikrofonoa eskuan, emakumeak iraintzen dituzten mezuak botatzen badiu, eraso sexista baten aurrean gaude. Salatu egiten dugu. Mutil gazte batek berarekin dagoen neska kolpatzea, nahiz eta txosna batzordeko kideok neskarekin kontaktatzea ez lortu, eraso

sexista bat da. Salatu egiten dugu. Espazioaren jaun eta jabe direla uste duten 4-5 mutil, barran kolpeka, irainka eta mehatxuka aritzea, eraso sexista bat da. Zergatik? Maskulinitate hegemoniko baten bandera delako. Eta ez du zerikusirik hartutako alkoholarekin edo bestelako substantziekin. Ezta ere mutil izatearekin. Ez nahastu. Zerrenda luzeagoa da. Baina ez dugu morborra jo nahi. Honekin guztiarekin, datozen urteei begira urratsak ematen jarraituko dugula adierazi nahi dugu. Eta honek hausnarketarako balio behar du, nahitaez. Jai esparrua, edozeinentzat segurua, eroso eta atsegina izatea nahi dugulako! Gure jai eremuan ez dugu inongo eraso sexistarik onartuko, jai herrikoi parekide batzuen alde!

Ane Arbeo Sarriugarte, Ainhoa Urrangoetxea Gezala eta Maialen Bidosola Ereño, Durangoko Txosna Batzordearen izenean



astekaria@anboto.org  
asteartea 17:00ak arteko epea

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbidea:** Bixente Kapanaga 9, 48215  
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia  
**-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-**

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpidean jarraituz zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).



## **> Berbaz**

Idoia Ortiz de Zarate (Otxandio, 1975) eta Unai Orbe (Mallabia, 1974) | Mainondoko gurasoa eta irakaslea

# “Denok erabaki genuen proiektu honetan sartzea, herri mailan”

Ikas komunitatea irakaskuntza ereduari txertatzeko lanean dihardute Otxandioko Mainondo eskolan



**> BERBAZ** Aitziber Basauri  
Ikas komunitatea irakaskuntza ereduari txertatzeko prozesuan murgilduta daude Mainondo eskolan. Batzorde mistoak eta talde elkarreragileak sortu dituzte Ametsa bete guran, eta proiektua desagertu ez dadin ari dira lanean. Boluntarioak animatu gura dituzte, eskola ez eze herria ere inplikatzeko duen egitasmoan.

Ikas komunitatea irakaskuntza ereduari txertatzeko prozesuan murgilduta zarete. Eskola-arrakasta du helburu.

**Unai Orbe:** Denon artean, bakoitzak dakiena besteari komunikatzea, horixe da helburua. Elkarrekin eztabaidatuz, bakoitzaren ezagupenak besteari helaraziz, akordio batera heltzea. Momentuz, irakasgai batera mugatu gara: matematikak. Ondo badoa, beste batzuetara zabaldu daiteke, baina, hasiberriak gara.

**Komunitate sozialarekin hartu-emanak badu eraginik?**

**U.O.:** Komunitateko beste pertsona batzuk ere hor daudela ikusteak, eta badutela zer ira-

katsi erakusteak ikaslearen ikuspegia aldatu dezake. Horri garrantzitsua deritzogu. Bestekiko errespetua izaten erakusten du, eta albokoaren saiakerak baloratzen lagundu.

**Ametsa 2013-2014 ikasturtean abiatu zenuten. Ikas komunitate osoaren ekarpenekin hainbat helburu batu zenituzten.**

**Idoia Ortiz de Zarate:** Herriko premiak ezagutu gura genituen. Irakasleen, ikasleen, gurasoen eta herritarren premiak. Hartara, 700etik gora amets batu genituen, eta horiek bideratzeko, hiru batzorde misto eratu ziren. Talde elkarreragileak ere sortu ziren, gelan bertan eragiteko.

**Talde elkarreragile horretan ari zara zu zeu. Zer egiten duzue?**

**I.O.:** Astean behin, matematika klase baten edo bitan jarduten dugu (buruketak, ariketen ebazpenak, geometria, jolasak... lantzen dituzte), hiruzpalau ikasleko talde txotetan. Blokeatuta geldituz gero, hortik irtetzen laguntzen diegu, arazoa bideratzen. Txarto irten arren, egitera sustatzen ditugu. Zeharka, errespetatzen, zailtasunak

dituenari laguntzen, azalpenak ematen, edota entzuten ikasten dute. Isilik dagoen eta ausartzen ez den horrengan eragiten dugu; bakoitzari bere lekua eman, eta zailtasun gehiago dituenari lagunduz.

**U.O.:** Txandak errespetatzen ikasten dute, albokoak dioena entzuten. Elkarrekin aritzea da helburua, albokoa errespetatuz, eta gainetik jarri gabe. Zer egin behar den eta nola adostu behar duten elkarregaz.

**Hiru batzorde misto ere sortu dira: pedagogikoa, azpiegiturak eta elkarbizitza.**

**U.O.:** Bai. Batutako ametsak, ahal den neurrian, egia bihurtzea dute helburu.

**I.O.:** Patioko arauak finkatu dira, eta konponketak egin dituzte. Etxeko lanen inguruan ere sortu zen eztabaida.

**Zer erabaki zenuten?**

**U. O.:** Guraso eta irakasleen artean galdetegi bat banatu genuen, eta, ikasleen artean, inkesta bat. Ikasleen %90ek esan zuten etxeko lanak nahi zituela, baina, era arautu batean (ez egunero, ezta egun baten piloa

Talde elkarreragileetarako boluntarioak ezinbestekoak dira. Hala ere, ez zarete asko.

**I.O.:** Aduituen lana dela, irakasle papera hartu behar dugula uste dute batzuek, eta, halako bildur bat dago. Ez da horrela. Egia da irakasleak badaudela, baina, irakasle ez garenak ere bai. Ez da behar ezagupen berezirik. Eskola-umeak ondo egotea, elkar errespetatzea da gure lana. Etxean lau umegaz egotea lez, baina, matematikak egiten. Eta ez da behar matematika jakitea, ez diozu esan behar-eta zer egin.

**Gurasoa edo bestelako familia kidea izan daiteke boluntario.**

**I.O.:** Bai. Orain, gaudenon erdiak baino gehiago, ez dira guraso. Eta, eskolan 100 familia bagara...

**Zer esan gura diezu animatzen ez diren horiei guztiei?**

**I.O.:** Denok erabaki genuela proiektu honetan sartzea, herri mailan erabaki genuela. Ikas komunitatea ez da eskolara mugatzen, herriko proiektu bat da, eta denok hartu genuen erabakia. Orain ezin dugu esan ‘beste batek egin dezala’. Gainera, oso positiboa dela uste dut. Esperientzia oso polita da, eta norberak ere asko ikasten du; umeei beste era baten entzuten, ikusten... ikasten da. Astean ordu t’erdi inguru da.

**U.O.:** Arazoa da, askotan, eskolako ordutegian izaten dela, eta lanagaz batera egitea ez da erraza. Txandaka arituz gero, batzuetan joan egin gaitzke, besteetan ez.

**Positiboa da ikasleentzat ere?**

**I.O.:** Umeak, orokorrean, gustura ari dira. Ikasteko beste modu bat da, eta harremanetan jartzeko beste era bat: lider papera hartzen duenaren berbak zein isilik geratu ohi denarenak balio bera duela ikasi behar dute. Zailtasunak izan ditzaketen ikasleei segurtasuna hartzen, iritzia ematen laguntzen die.

**U.O.:** Talde kohesioa ere lantzen da. Gerta liteke ondo ez konponetzea, baina, lanerako errespetu hori mantenduko dute. Era berean, ikasketak ondo daroazenen artean ere sumatzen da jarriera aldaketa bat, ez lanarekiko, bestearekiko baizik.

**Beste ikastetxe batzuk ere badaude proiektu honetan sartuta.**

**I.O.:** Lekeition, adibidez. Proiektua bideratzen lagundu ziguten. Iurretako Maiztegin ere ari dira.

“**Talde elkarreragilean aritzea esperientzia polita da, norberak ere asko ikasten du**”

“**Boluntarioen erdiak baino gehiago ez dira guraso. Eta 100 familia gara eskolan**”

batzea ere, eta hurrengoan ezer ez). Irakaslearen artean, koordinatzea eta arau batzuk finkatzea erabaki genuen. Halako dekalogo bat sortu zen.

**Talde elkarreragileen helburua, baina, bestelakoa da?**

**I.O.:** Hala da, bai. Kasu honetan, jolasean ikastea da helburua. Matematikak beste era batera lantzea, zeharka beste hainbat gai landuz: errespetua, enpatia... Ikas komunitatea irakaskuntzan txertatzeko prozesuaren bi arlo bereizi dira: batzorde mistoak eta talde elkarreragileak.





Azaroaren 7an, 22:00etan, egingo dute lehiaketara aurkezturiko lanen emanaldia eta sari banaketa, Arriolan.

## Hamargarren urtebetetzea ospatuko du film laburren Elorrioko lehiaketak

Azaroaren 6an eta 7an ibiliko dira parte-hartzaileak 24 Ordu Digitalean lehiaketako filmak grabatzen

**> ZINEMA** Itsaso Esteban  
16-18 talde parte-hartzaile espe-  
ro dituzte antolatzaileek dato-  
rren astebururako, Elorrioko  
24 Ordu Digitalean film labur-  
ren lehiaketan. Aurtengoa, 10.  
edizioa izango da. Azaroaren  
6an emango dizkiete parte-har-  
tzaileei lanak osatzeko jarrai-  
bideak, 17:00etan, Arriolan, eta

hurrengo egunera arte ariko di-  
ra euren filmak grabatzen. Aza-  
roaren 7an, 22:00etan, 24 orduan  
ekoizturiko lan guztiak emango  
dituzte Arriolan, eta sari bana-  
keta egingo dute.

Karlos Gomez elorriarrak  
Edinburgotik ekarritako ideia  
hau duela 10 urte gauzatu zuten,  
Elorrioko Arriolan, lehenengoz.

24 orduan film labur bat pentsa-  
tu, grabatu, editatu, eta aurkez-  
tea zen lehiaketa formatu berri  
horren planteamendua. Or-  
dutik, Arriola antzokiagaz eta  
hainbat lagunen babesagaz an-  
tolatu dute 24 Ordu Digitalean,  
herriko kulturzaileei sorkuntza  
lan baten bueltan elkartu, eta  
esperientzia hori izateko aukera

eskaintzeko helburu nagusia-  
gaz. “Ondo pasatu, taldean lan  
bat sortu, eta Arriolakoa modu-  
ko pantaila batean proiektatuta  
ikustea sari itzela da”, azpima-  
rratu du Gomez antolatzaileak.

Elorrioko hainbat taldek par-  
te hartu izan du, urteotan, lehia-  
ketan, eta eskualdeko beste herri  
batzuetatik ere urtero-urtero

joaten dira hainbat zinezale,  
24 Ordu Digitalean-en euren  
filmak osatzera. Egonkortua  
dago lehiaketa, badagoelako za-  
letasuna: “Izan ere, lagun-talde  
guztietan dago baten bat edizioa  
kontrolatzen duena, grabatzea  
gustatzen zaiona, eta aktore iza-  
tea gura izan duena beti”.

### Gazteen lehiaketa

24 Ordu Digitalean ekimena-  
ren 10. edizioan burutuko dute,  
aurten, lehenengoz, 12-17 urteko  
gazteen film labur lehiaketa ere.  
Durangoko Amankomunazgoa-  
gaz antolatu dute, eta barikutik,  
zazpi eguneko epea izango dute  
gazteek euren lanak egiteko.

### Berrizko argazkien XVII. lehiaketa antolatu dute

#### > ARGAZKIAK

Azaroaren 27ra arte aurkez-  
ditzakete argazkizaleek euren  
lanak Berrizko argazki lehia-  
ketara. Herriarekin erlazio-  
naturiko argazkien lehiaketa  
da, hau da, herriko ohiturak,  
ekintzak, herriko jendea, etab.  
izan beharko dira argazkien  
protagonistak. Azaroaren 27ra  
arte, Liburutegian jasoko di-  
tuzte, astelehenetik zapatara,  
parte-hartzaileen argazkiak.

Hainbat sari emango dituz-  
te: lehenengo saria 250 eurokoa  
izango da, 200 eurokoak biga-  
rrena zein genero ikuspegia  
hoberen lantzen duen argaz-  
kiak irabaziko duena, eta 100  
eurokoa berriztar batek egin-  
dako argazkirik onenarentza-  
ko sari berezia.

## Durangaldeko maketa lehiaketan joko dutenen izenak eman dituzte

Azaroan eta abenduan izango diren hiru kontzertuetan joko dute talde hautatuek

#### > MUSIKA I. E.

Euren kantak lehiaketara  
aurkeztu dituzten taldeetatik  
bederlatzi aukeratu ditu epai-

mahaiak Durangaldeko maketa  
lehiaketaren hiru zuzenekoetan  
aritzeko. Atzekabe, Nevadah,  
Brainfall, Eresi, Yellow Mar-

supials, Alter Ego, Desore, Pri-  
meros Auxilios eta Hamaika  
Ikusteko Jaiok ariko dira zuzen-  
neko horietan. Azaroaren 20an,



Kilauea taldeak irabazi zuen lehiaketa honen 2012ko lehenengo edizioa.

27an eta abenduaren 11n egingo  
dituzte Durangaldeko maketa  
lehiaketaren zuzenekoak, Zor-  
notzako Zelaieta zentroko kon-  
zertu gelan.

### Kontzertuen datak

Azaroaren 20an, Atzekabe, Ne-  
vadah eta Brainfall taldeek joko  
dute; 27an, Eresi, Yellow Mar-  
supials eta Alter Ego taldeek  
eskainiko dute kontzertua; eta  
Desore, Primeros Auxilios eta  
Hamaika Ikusteko Jaiok tal-  
deek, abenduaren 11n.

Hiru sari emango dituzte Du-  
rangaldeko III. Maketa Lehia-  
ketan; talderik onenak 1.500  
euro jasoko ditu, 500 euskarazko  
kanturik onenaren egileak, eta  
Zornotzako jaietan jo ahal iza-  
tea, hirugarrenak.

Abadiño, Durango, Iurreta  
eta Zornotzako udaletako gazte-  
ria arloek elkarlanean antolatu-  
riko ekimena da Maketa Lehia-  
keta hau. Lehenengo edizioan  
Kilauea taldeak irabazi zuen,  
eta Mockers taldeak, iaz.



**> MUSIKA** Itsaso Esteban  
Bihar, 20:00etan, San Frantzisko elizan, izango da Durangoko XXVI. Musika Hamabostaldiaren lehenengo hitzordua. *Boleroak* ikuskizuna izango da entzungai, Bartolome Ertzilla musika eskolako 4KOTE abeslarien eta Gehi Zazpi biolontxelo taldearen eskutik. Musika eskolan hazitako proiektuak zabalduko du, beraz, Durangoko Udalak eta Bartolome Ertzillak antolatutako ziklo musikala.

Musika bere zabaltasunean gozatzeko, beste hiru kontzertu ere eskainiko ditu Durangaldeko Musika Hamabostaldiak.

### Beste hiru emanaldi

Azaroaren 7an, San Agustin kulturunean ariko da, Bartzelonako Aupa Quartet izeneko hari-laukotea. Inprobisaziotik, jazz, funk, son kubatar eta flamenko ukituko kantak sortzen ditu talde horrek.

Azaroaren 14an, Donostiako Orfeoi Gazteko ahotsak izango dira Hamabostaldiko protagonistak. Andra Marian, 20:00etan, izango da emanaldia. 45 neska-mutilek osaturiko abesbatza mistoa da hori, 2006an sorturikoa. Orfeoi Txikiaren

# Durangaldeko musikarien saioa, Hamabostaldiko lehenengoa

4KOTE eta Gehi Zazpi taldeek zabaduko dute, bihar, Durangoko musika zikloa



Durangoko musika eskolan sorturiko 'Boleroak' ikuskizuna izango da, bihar.

eta Orfeoiaren artean abeslarietako kantuan segitzeko aukera eskaintzeko sortu zuten.

Pablo Naveran biolontxelista bilbotarraren eta Alexander

Kandelaki pianista georgiarraren kontzertuak itxiko du aurtengo Musika Hamabostaldia. Azaroaren 28an, 20:00etan, San Agustinen izango da emanaldia.

Doakoa izango da biharko eta azaroaren 14ko emanaldietarako sarrera, eta 8 euroko sarrera edukiko dute azaroaren 7ko eta 28ko beste emanaldi biek.

# Punk rockeko dozena bat talde ariko da Platerueneko EH Eztanda jaialdian

Nazioarteko sei taldek, eta Arrasateko Iskanbila taldeak joko dute, esaterako



The Last Resort ingelesak dira jaialdiko lehenengo eguneko kartel buru.

### > MUSIKA I. E.

Bertako eta nazioarteko puntako punk eta Oi! taldeak elkartuko dituzte, gaur eta bihar, Durangoko Plateruenean izango den EH Eztanda musika jaialdian. Hamabost talderen zuzenekoak izango dira, bi egunetan, Plateruenean.

Antolatzaileek nabarmendu dutenez, estilo horretako nazioarteko punta-puntako sei banda ariko dira Durangon: Nabat italiarrak, 4Promille alemaniarrak, The Last Resort eta Subculture ingelesak, Negative Approach Estatu Batuarrek, eta

Headliners frantsesak. Nazioartekoarena bakarrik ez, bertako punk mugimenduaren erakusle ere izango da asteburuko jaialdia. Arrasaten 90eko hamarkadan sorturiko Iskanbila taldeak ere joko du, esaterako.

Gaur, jaialdiko lehenengo egunean, zazpi talde ariko dira, 20:00etatik aurrera, Plateruenean. NOM taldeak zabalduko du gaua, eta ondoren ariko dira Knockout, Madskins, Subculture, Doubling Boys, Nabat eta The Last Resort taldeak. Ingalaterrako Oi! mugimenduaren erakusle den hirukote hori da EH Eztanda jaialdiaren lehenengo eguneko kartel burua.

Bihar, beste zortzi talderen zuzenekoak izango dira entzungai. Última Sacudida, Friday Crew, Strike Back, Crim, Negative Approach, Headliners, 4Promille, eta Iskanbila taldeenak.

## GEURE DURANGALDEA

**FERNAN RUIZ**

Barbaroko kidea



### Elkarrekin bizirautea

Apur bat badakiela eta euskara hobeto ikasi gura duela agertu da, bere ondasun guztiak plastikozko poltsa bitan sartuta. Sahara bere herrialdearen edertasunak aipatzeaz batera, nire alboan jarrita eta googleko mapa pantailan, berriketan hasi da bere sorlekuari buruz: lekuen lilurak goraiatu, irudiak erakutsi, azaldu... Marokoarren okupazio bidegabea aipatzean, ernegatu egin da. Tinduf eta hango hondamendiaz berba bat ere ez. Eta segitu du..., umetan aitzak uretara bota zuela uger egiten ikas zezan, itsas ondoan bizirauteko urarekiko atxikimendua saihestezina baita. Gogorarazi zion amaren sabelean bederatzi hilabete beratsen egon ondoren jaio zela. Hartara, arrainetik ere zerbait badugula, eta azala ezkatat bihurtuz joan zitzaion. Hala kontatzen du. Eta apurka, itsasotik halabeharrez urrunduz zen arren, ezkatat gero eta itsatsiago, gero eta gogorrago; izan ere, lurretik narrasean ibiltzea kondanatu baitzuten gaur egun lurralderik ez duen bere herri/kultura sakabanatua. Errefuxiatuen bizilekuetako hondamenaz, ostera, hitz bat ere ez. Izena eman du euskara ikasteko. Ez dauka mugikorrik eta aste bi barru itzuliko da ikastalderik duen jakiteko.

Gure inguruko ekosistema eta euskara izan ditugu mintzagai, askoren artean, egunotan prestakuntza jardunaldi batean. Elkarrekin bizirauteko sistemaren osagai guztiak kontuan hartzea ei da gakoa. Ea asmatzen dugun. Edozelan ere, batzuk EGAK zertarako balio duen eztabaidan galtzen diren bitartean, ez ahaztu bestetuk narrastien azala garatzen ari direla.

**PLATERUENA** Durangoko Kafe Antzokia [www.plateruena.net](http://www.plateruena.net)  
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

**JAT ETX EA**

**EGUNEKO MENUA** IGANDEETAN MENU BEREZIAK

**EH EZTANDA!** EH-KO PUNK-OI JAIALDIA

**URRIAK 30** 21:00etan **EH EZTANDA!** JAIALDIA

**URRIAK 31** 21:00etan **EH EZTANDA!** JAIALDIA

**AZAROAK 2** 17:00etan **OLGETAN** HAURRENTZAKO EKINTZA

berbaroko umeak **olgetan**

**KontuKantari**  
La Enana Naranja

**Azaroaren 1ean** 18:00etan

Sanagustinalde, 12  
Tel.: 946 030 021  
[sanagustin@durango-udala.net](mailto:sanagustin@durango-udala.net)

San Agustin KULTUR GUNEA





# JATETXE GIDA

**ÑAM!**

## MENU BEREZIA

Sarrerakoak (bi aukeran)  
Entsalada  
Patata frijituak  
Zatitutako txuleta errea  
Postrea  
Ogia eta edaria

**60€**  
bikoteko  
(BEZa barne)

**ÑAM!**

**JULIANTXU**  
Iturriza, 2 BERRIZ  
Tel.: 946 824 077

Karta. Txuleta errea.  
75 lagunentzako jangela.



**PLATERUENA Kafe Antzokia**  
Landako etorbidea, 4 DURANGO  
Tel.: 946 030 300

Egunero zabalik. Menu bereziak, egunekoak,  
taldeentzakoak eta ospakizunak.

**ÑAM!**

**PEDRO JUAN**  
San Antonio, 1 BERRIZ  
Tel.: 946 826 246

Eguneko menua. Karta. Domeka,  
astelehen eta martitzen gauetan itxita.

**ÑAM!**

**IKUSPEGI**  
Goiguria, 12 IURRETA  
Tel.: 946 811 082

Sukaldaritza tradizionala autore sukaldaritza  
ukituarekin. Durangaldeko ikuspegi ederrak.  
[www.ikuspegi.com](http://www.ikuspegi.com)

**ÑAM!**

**LAPIKO**  
Frantzisko Ibarra, 3 DURANGO  
Tel.: 946 218 122

Etxeko pizzak. Eguneko menua,  
karta berria. Etxera eramateko zerbitzua.  
[www.lapikodurango.com](http://www.lapikodurango.com)

**ÑAM!**

**IBARRA SAGARDOTEGIA**  
Ibarra auzoa, z/g · ZORNOTZA  
[www.ibarra-sagardotegi.com](http://www.ibarra-sagardotegi.com)  
Tel.: 946 731 100

Egunero zabalik.  
Gure upategian egindako sagardoa.  
Aparkaleku pribatua eta jolastokia.  
Zozketaren irabazlea:  
**Aranzazu Royuela** zorionak!





Cristina Mora izurtzarra —zutunik, antzezlanaren gidoia eskuartearen duela—, Mila Infanzón lankideagaz.

## “Delibesen literatura omendugura izan dut obra honegaz”

Azaroaren 6an, Bilborocken antzeztuko dute Cristina Mora izurtzarrak eta Mila Infanzón lagunak idatziriko ‘Nadie te llora’ obra. Morak aurkeztu digu

**> ANTZERKIA** Itsaso Esteban Zelan sortu zen Mila Infanzón lagunagaz ‘Nadie te llora’ antzerki obra idazteko ideia? Ikus-entzunezko mundutik gatzoz biok, eta antzezlana hau sortzen hasterakoan, giza eskubi-deen inguruko film labur bat amaitu berri genuen. Neu hasi nintzen idazten, baina hainbat zalantza nituen, eta laguntza eske joan nintzaion Milari.

Zer ekarpen egin dio Infanzonek idatzitakoari? Ni oso pertsona lasaia naiz, eta obrako pertsonaiek zakartasuna behar zuten: gauza politikoki ez-zuzenak esatea. Obrari ukitu hori ematen lagundu dit Milak. Antzezlanean pertsonaiak nekazaritza dira, ikasketarik gabeak. Baina, sufrimenduaren eta injustiziaren aurrean, indarra erakusten dute.

Zein izan zen obra idaztera bultzatu zintuen hasierako ideia? Beti egon izan naiz antzerkiagaz maiteminduta, baina daukan prezioagaz, ezin izan dut nahi beste emanalditara joan. Oso gaztetatik, antzezlana asko irakurri izan dut, eta neuk idazteko grina sortu zitzaidan. Ideia hori buruan nerabilen sasoiaren, Miguel Delibes, nire idazle kutunena, hil zen, eta asmoa gauzatzen

saiatzea erabaki nuen. Hasieratik, Delibesen nekazaritza-munduari buruzko literatura omentzea gura izan dut.

**Zertan ikusten da Delibesen eragina ‘Nadie te llora’ obran?** Istorioak ez dauka zerikusirik Delibesenarekin, baina badaude bere lanari erreferentzia batzuk. *Los santos inocentes*-en agertzen diren miseria, ezjakintasuna, hobetzeko desioa, gosea, etab. presente daude gure antzezlanean ere. Obraren lehenengo bi ekintzak, esaterako, gaubeila batean gertatzen dira, Delibesen *Cinco horas con Mario*-n bezala.

**Non kokaturikoa da istorioa?** Gaztelako herri batean, 50eko hamarkadan. Lan handia egin dugu garai eta leku horretako jantziak lortzen ere...

**Zeintzuk gai agertzen dira antzezlanean? Zein da istorioa?** Herriko jauntxoak hil egin da, eta hildakoa gorroto duten arren, hainbat herritar elkartu dira gaubeilan, otoitz egiten. Azkenean, baina, hildako kazikeak jende horri egindako ankerkeria guztiaren kontakizuna bilakatzen da gaubeila izan behar zena. Tragikomediaren ezaugarriak ditu antzezlana, baina amaiera baikorra du.

**Idazkuntzan ezezik, antzezlana osatzeko beste prozesu guztietan ere parte hartu duzue?** Bai, prozesu guztietan hartu dugu parte Milak eta biok; jan-

tziak bilatzen neu ibili nintzen Salamancan, esaterako, eta baita aktoreen *casting*-era etorri ziren ehun lagun artetik gure pertsonaiak hautatzen, edo diru-laguntza eskariak egiten.

**Lortu duzue proiektua gauzatzeko diru-laguntzarik?** Diru-laguntza eskatu diogun hainbat erakundek ukatu egin digu laguntza, obra gaztelaniaz idatzita dagoela arrazoituta. Diskriminatuak sentitu gara, alde horretatik. Zailtasun handiekin, eta lagun babesari esker atera dugu proiektua aurrera. Duintasunagatik egin dugu aurrera, diru-laguntzarik barik ere, uste baitugu eskubide osoa dugula nahi dugun hizkuntzan adierazi eta sortzeko. Ez daukat ezer euskararen kontra, oso pertsona irekia naiz, baina ezin naute euskaraz idaztera behartu, euskaraz idazten duena gaztelaniaz egitera derrigortu ezin daitekeen bezala. Nire hizkuntza gaztelania da, eta hizkuntza horretan idaztea hautatu dut.

**Obra azaroaren 6an Bilborocken aurkeztu eta gero, beste emanaldirik egingo duzue?** Hasieratik, argi eduki dugu proiektu zehatz hau gauzatzeko elkartu garela, ez garela antzerki konpainia bat. Hasieratik adostu dugu, baita, estreinaldiaren ostean, beste emanaldi bat ere eskainiko genuela, posible bada, Durangaldean. Baina ez daukagu antzezlana hor zehar eskaintzeko baliabiderik.

## Edorta Barruetabeñak idatziriko ‘Yoko eta lagunak’; estreinaldia

Sevillako Zinema Europearraren jaialdian aurkeztuko dute animazioko filma

**> ZINEMA I. E.** Azaroaren 6tik 14ra Sevillan (Espainia) egingo duten Zinema Europearraren XII. jaialdian

aurkeztuko dute Edorta Barruetabeña durangarra gidoilari duen *Yoko eta lagunak* filma. Zinemaldi horretako Europa

Junior atalean lehiatuko da, hau da, ume eta gazteentzat Europar sorturiko filmen atalean, jaialdi horretan berria den sailean.



Barruetabeñak idatziriko animazioko filmaren irudietako bat.

Azaroaren 7an, Donostian; eta 8an, Eitb-ren Bilboko egoitzan egingo dituzte aurrestreinaldiak. Zinema-aretoetan ere laster izango da *Yoko eta lagunak* ikusteko aukera. Azaroaren 13an egingo dute estreinaldia.

Duela lau urte *Gartxot*, *konkista aurreko konkista* izenburuko animazioko filma idatzi zuen Edorta Barruetabeña durangarrak Juanjo Elordigaz, eta oraingoan ere elkarrekin jardun dira Barruetabeña eta Elordi. Durangarraren gidoian oinarrituta, Juanjo Elordik eta Rishat Gilmetdinov errusiarrak zuzendu dute *Yoko eta lagunak*.

Barruetabeñaren gidoian oinarrituta, Juanjo Elordik eta Rishat Gilmetdinovek zuzendu dute filma

Animazioko film luzea da *Yoko eta lagunak*, 4 eta 8 urte arteko ikusle goarentzat pentsatua dagoena, eta Vik izeneko sei urteko haurra protagonista duena.

Lan kontuak direla medio, Viken gurasoek hirugarrenez erabaki dute beste hiri batera bizitzera joatea. Beti gertatzen zaio berdin Viki: harremanak egiten ditueneko beste nora-bait joan beharra dute.

Animazioko film luzea da ‘Yoko eta lagunak’, lau eta zortzi urte arteko ikusleentzat sorturikoa

Oraingoan, parkean ezagutu dituen Mai eta Oto lagunekin, eta euren jolas alaiekin erakarri duten Yoko izaki magikoarekin, oso gustura dabil Vik. Abentura liluragarriak bizi dituzte elkarrekin egunero, eskolatik irten eta gero, parkean. Baina, oraingoan ere, gurasoek bizilekuz aldatzea erabakiko dute.

Filmagaz, hiriguneetan bizi diren umeentzat gero eta zailagoa dena aldarrikatu gura izan dute sortzaileek: aire librean jolastearen garrantziaz ohartarazi gura dute ikusle goa.



Irati Alberdi (Elorrio, 1988) | Ane Ibarra (Elorrio, 1989) | Itxasne Larruskain (Elorrio, 1992)

# “Jokalarien arteko kohesioa da taldearen indargune nagusia”

Elorrioko futbol taldeko hiru kapitainak batu ditugu taldearen gaurkotasuna jorrazteko



Ezkerretik hasita, Itxasne Larruskain, Ane Ibarra eta Irati Alberdi.

**> FUTBOLA** J.Derteano  
Iaz Elorriok Euskal Ligarako igoera lortu zuen, bere historian lehenengoz. Ane Ibarra, Irati Alberdi eta Itxasne Larruskain taldeko hiru kapitainak dira, eta beren ibilbide osoa Elorrioren daramate. Eurak baino nor egokiagorik taldearen nondik norakoak azaltzeko.

**Euskal Ligarako igoera ezustekoa izan zen?**

**Itxasne Larruskain:** Talde bakarra igotzen zen, eta denboraldi osoa goian borrokatzen ibili ostean, bigarren amaitu genuen. Baina Nazional Mailako Abanto desagertu egin zen, eta horren eraginez, plaza berri sortu, eta geu igo ginen.

**Irati Alberdi:** Gontzalek [Arana, entrenatzailea] uztailean eta whastapp bidez jakinarazi zigun igo ginela. Egun horretan bertan, Durangora joan ginen ospatzera, baina ez ginen denok batu, eta Elorrioko jaietan urtero egiten dugun bazkaria ere igoera ospatzeko aprobetxatu genuen.

**Taldeak jokalaria berri asko ditu aurtentzen?**

**I.A.:** Ez, bakarra: Aitziber Valladares. Elorriarra da. Futbola utzita zuen, eta aurtentzen bueltatu egin da.

**Jokalarien erdiak elorriarrak dira, baina badaude herritik kanpoko hainbat ere. Kosta egiten da taldea batuta mantentzea?**

**I.L.:** Oso ondo moldatu direla uste dut. Taldeko parte dira orain.

**I.A.:** Jokalarien arteko kohesioa da taldearen indargune nagusia eta kanpotik datorrenak ere ikusten du hori dela bidea.

**Bizkaitik Euskadi mailako ligarako saltoa, zertan igartzen da gehien?**

**I. A.:** Hasteko, partiduek hamar minutu gehiago irauten dute, eta igartzen dira. Intentsitateari dagokionez ere, beste erritmo batean jokatzen da.

**A.I.:** Talde ordenatuagoak eta kalitate handiagokoak aurkitu ditugu. Horrez gainera, beste aldaketa bat joan-etorriena da: orain urrunago joan behar izaten dugu.

**Ligako bost jardunaldiren ostean, sailkapenaren goialdean zaudete. Espero zenuten horrelako hasiera?**

**Ane Ibarra:** Mailari eustea da gure helburua. Baina ez gaude harrিতa, lan asko egin dugu eta. Bagenekien irabazteko aukerak izango genituela. Egia esanda, garaipenak segidan eto-

rriri dira, eta etorriko dira bolada okerragoak ere.

**I.L.:** Nik ez nuen hain ondo hasieratik espero. Zailtasun askogaz ibiliko ginela uste nuen. Baina pozik gaude, eta ea horrela jarraitzen dugun!

**Zein da hain errendimendu onaren sekretua?**

**A.I.:** Oso talde intentsoa garela uste dut. Nahiko goian presionatzen, korrika asko egin eta taldea batuta mantentzen, horretan saiatzen gara. Badaude gu baino hobeak diren taldeak, baina gure baliabideekin irabazi ahal diegu.

**I.L.:** Gure sekretua talde izaera da. Talde moduan eta denok denontzat jokatzen dugunean irabazten dugu. Bakoitza bere aldetik hasten bada, sufritu egiten dugu.

**Gol gutxi jaso dituzue, baina ez dituzue asko sartu. Taldea defentsako lanean oinarritzen da?**

**I.A.:** Gol gehiago sartzea da hobetu beharreko alderdietako bat. Hori ikusten dugu.

**A.I.:** Baina ez gara talde defentsiboa. Aukerak sortu, sortzen ditugu, baina gehiagotan asmatzea falta zaigu.

**I.L.:** Egia da une honetan hobeto gaudela defentsan erasoan bai-

“*Zuzendaritzatik baloratuta sentitzen gara; mutilekin berdintasunean tratatzen gaituzte*”

no, baina horrek ez du esan nahi talde defentsiboa garenik.

**Ane eta Irati, zuek areto-futboletik batu zineten Elorriora, eta taldea apurka hazten ikusi duzue. Hasi zinetenetik, egoera asko aldatu da?**

**I.A.:** Askok aldatu da, bai. Alderdi guztietan, eta onerako. Jokatzeko eran, entrenatzeko moduan, taldeko baliuetan... dena aldatu da. Hasierako urteekin alderatuz gero, orain beste seriotasun bat dago.

**A.I.:** Lehen ez zegoen neskarik jokatzeko. Klubeko presidentek nire aitari eskatu zion ni futboleko hasi nendin konbentzitzeko, eta horrela hasi nintzen. Gauzak asko aldatu dira. Orain, dena serioagoa da, eta beste egitura bat dago.

**Iaz, lurretako desagertu egin zen jokalaria ez zirelako baloratuak sentitzen zuzendaritzaren partetik. Zuek zelako hartuemana duzue zuzendaritzagaz?**

**A.I.:** Oso ondo tratatzen gaituzte, eta guztiz baloratuta sentitzen gara. Mutilen parean tratatzen gaituzte, berdintasunean. Harro daude igo garelako, eta asko ani-

matzen gaituzte. Ez dugu batere kezarik.

**Gontzal Arana duzue entrenatzaile, hiru urtean. Arrakastaren zer parte du berak?**

**A.I.:** Gutan asko sinesten duen entrenatzailea da, eta guk ere konfiantza handia dugu berarengan.

**I.A.:** Gontzal oso pertsona inportantea izan da guk taldean dugun batasun hori sortzerako orduan. Denon artean lortu dugu, eta Gontzal ere horren alde indarra egin duen osagai inportanteenetakoa izan da. Hainbat entrenatzaile izan ditugu, eta berarekin lortu dugu gehien amestea.

**Izango du akatsen bat ere...**

**A.I.:** Ez dakit zer esan [pentsatzeko denbora hartzen du]. Batzuetan, hain konfiantza handia du gutan ezen uste du egiten duguna baino gehiago egin dezakegula beti. Bera konbentzitu egoten da. Batzuetan, lar baikorra dela ere esango nuke. Baina hobe horrela izatea, eta ez kontrakoa.

**Zelan bizi duzue futbola? Zuen bizitzan zer garrantzia dauka?**

**I.A.:** Denborapasa moduan hasi nintzen, eta gero eta serioagoa bihurtu da. Batzuetan, serioegi ere hartu izan dugu. Baina, behar dugun zerbait da, kirola egiteko, lagunekin egoteko, gure ilusioak betetzeko...

**A.I.:** Nire aita futbolzalea izan da, eta San Mamesera txikitatik eraman nau. Etxean hasitako zaletasuna handitu egin zen talde-erabaketa baten ondoren. Azkenean, zure bizitzako parte bihurtzen da.

**I.L.:** Urteak aurrea egin ahala, taldea indartzen joan da, eta garrantzitsuagoa bihurtu da denontzat. Ez kirol arloan bakarrik, baita egiten diren lagunengatik ere.



Elorrioren aurtengo talde argazkia.





Emakumeen Birak 28 urte daramatza munduko txirrindulari onenak batzen.

## Bira telebistan zuzenean emateko aukerak aztertuko ditu Jaurlaritzak

Emakumeen Birako antolatzaileak Jaurlaritzako ordezkariekin batu dira

### > TXIRRINDULARITZA J.D.

Emakumeen Bira UCiren aurtengo World Tour egutegitik kanpo geratu dela jakin zenetik, antolatzaileak onenen tren horretara igo ahal izateko bideak bilatzen ari dira. Badakite aurturten lortu ezik, urterik urtera zailagoa izango dena.

UCIk garrantzi handia ematen dio lasterketen estaldura mediatikoari, eta egutegian

sartu dituzten probek, antza, komunikabideetan estaldura hobea dute. Eta alderdi hori hobetzeko eskatu dio UCiK Birari, bitartekari lana egiten dabilen Espainiako Txirrindularitza Federazioaren bitartez.

Hedabide eta estaldura mota asko daude, baina, denen gainetik, telebista eta zuzeneko emankizuna dago. Horixe da gakoa. Horregatik, Birako

antolatzaileak Eusko Jaurlaritzako Kirol zuzendaria den Jon Redondorekin batzartu ziren, astelehenean. ETBk Biraren zuzeneko emankizuna egitearen aukera mahaigaineratu zuten. Redondoren aldetik, "erabateko aldeko jarrera" aurkitu zutela adierazi du Agus Ruiz Emakumeen Bira ZKE-ko kideak. Baina, aldeko jarrera bakarrik ez da nahikoa, jakina.

## Ajuria onena kilometro bertikalen euskal kopan

Kadete mailan nagusitu da Aitor Ajuria; Garazi Sampedro hirugarren geratu da maila absolutuan

### > KORRIKA

Kilometro bertikalen Euskadiko Kopan parte hartzen zuen estreinako urtean, kadete mailako txapelkun geratzea lortu du Aitor Ajuriak (1991, Otxandio).

Joa zen asteburuan, Araia-Aratzeko azken proban, aurreneko kadetea izan zen. Sailkapen orokorrean, laugarren

geratu zen Iñigo Larizek irabazi zuen igoeran. Markel Zamakona otxandierra 10. izan zen.

Maila absolutuan, Garazi Sampedro atxondarra (Durango Kirol taldea) hirugarren geratu da Euskadiko Kopan. Araia-Aratzeko lortutako laugarren postuak podiumeko postua segurtatu zion.



Aitor Ajuria Araia-Aratzeko podiumean.

## Paleta goman garaipena behar dute Goikoetxeak eta Villanuevak

### > TRINKETA

Gaur, 20:15ean, Nesken Gomazko MPB Paleta Zirkuituko azkenengo jardunaldia jokatu dute Abadiñon, Traña-Matienako pilotalekuan. Igandeko finalerdietara sailkatzea gura badute, Goikoetxea eta Villanueva irabaztera behar izango da. Urnieta eta Larrabetzu-ko pilotarientzat hil ala biziko

Alde biak etxeko lanekin agurtu ziren. Redondo ETBko kirol arduradunekin batzekotan geratu zen. Batzar horren helburua zuzeneko emankizuna egiteko dauden aukera desberdinak aztertzea eta bakoitzak erakarriko lituzkeen gastuak zehaztea da. Batzarraren nondik norakoak astebetteren barruan jakinarazteko geratu ziren.

Birako arduradunek, bere aldetik, informazio gehiago batu behar dute UCiren aldetik: esaterako, ea zuzenekoak etapa denetan egin behar diren, ala grabaturik estaldura zabala eginda, azken etapa zuzenean emanda nahikoa litzatekeen.

Martitzenean, Birako antolatzaileek Espainiako federazioari idatziz helarazi zioten zer jakin behar duten, eta federazioa jarriko da UCirekin hartuemanetan.

### Diru publikoaren beharra

Birako antolatzaileek argi dute zuzeneko emankizunaren kostua Eusko Jaurlaritzak edo ETBk hartu behar dutela euren gain, edo biek batera: "Eurak bakarrik egin daitezke kosturen kargu. Argi utzi genuen ezin genuela hor sartu", adierazi du Ruizek. Gizonen proba zuzenean ematen bada, emakumeen ere estaldura berdina merezi duela uste du: "Txirrindularitza biak parekatzeko ahalegin hori egin beharko litzateke".

partidua da. Abadiñon garaipena lortuz gero, hirugarren geratzea lortuko lukete. Baina hori, Durangaldeko pilotari baten kalterako izango litzateke, Itsaso Pradera mallabiarra —eta baita Isasmendi ere— txapelketatik kanpora geratuko litzatekeelako.

Edozelan ere, partidua zaila dute gaur Goikoetxeak eta Villanuevak, gaur egun sasoirik onenean dauden Leire Etxaniz eta Nagore Martin izango dituztelako aurkari. Azken horiek, dagoeneko, segurtaturik dute finalerdietan jokatzeko, baina emaitza ona lortzea komeni zaie.

## Durango Nissan Gaursaren ligako lehen garaipena

Valladolid azkena jipoitu zuten Arripausuetan

### > ERRUGBIA

Durango Nissan Gaursa errugbi taldeak Ohorezko B Mailako laugarren partiduan lortu du denboraldiko lehenengo garaipena. Arripausuetan, gaur egun Valladolid Quesos Entrepinares

taldea baino askoz gehiago dela erakutsi zuen: 34-3. Ondorioz, bost puntu batu zituen.

Hala ere, emaitza engainagarria izan daiteke. Lehenengo zatian, nahi baino zailtasun gehiago izan zituzten. Jokoa

## ADITUAREN TXOKOA

### KEPA ARROITAJAUREGI

Pilota teknikaria



### Urruti, beste behin

Pilotazalea, sasoi honetan ohikoa dan bezala, kaiolako txapelketari begira dago. Hori esanda, beste behin, Mikel Urrutikoetxea aitatu behar. Zaratamoarrak finalerdia ziurtatua du jokatu du bi lehiak irabazita. Irujoren kontrako garaipenak emandako konfiantzak Julian Retege handiaren semea bederatzi tantutan uztea ahalbidetu dio.

Eskaintako jokoak, gainera, finalean izan eta txapela janzteko gaitasuna ere baduela adierazten dio bizkaitar zalegoari. Dena den, horretarako, asko eta ondo jokatu beharra dauka oraindik Banakako 2015.eko txapelkunak. Hurrengo izango da Urrutikoetxearen partidua samurrena, psikologikoki behintzat bai, ez baitu ezelako arriskurik. Halere, sentsazioek asko balio dute, eta ligatxua ondo bukatzea nahi du berak.

Gerokoak dira irabazi beharrekoak. Beno, lehenik eta behin, hurrengo (finalerdia), hori irabazi ezik ez baitago besterik. Aurkariak Olaizola, Altuna III edo Bengoetxea VI izan daitezke, zein nahiago? Samurrena? Arriskutsuena? Nik, topikoa izango bada ere, Aimarri diot 'beldur' gehien. Bata zein bestea izan, Urrutikoetxea beste final batean ikustea posible da!

Amateurretan ere gure pilotariek badute konpromiso garrantzitsurik. Denen artean, Aitor Elordi mallabiarra aipatu behar. Aspen debutatzean dagoenak Matienan dauka DV-Credit Agricole lehiaketako partidua, bihar bertan; A. Imaz kide duela, Mendinueta eta Olaizola izango ditu aurkari. Promesetan, Urizar markinarra ere etorriko da.


erakusten zuten nagusitasuna ezin zuten markagailuan islatu. Bigarren zatian, aldiz, entseguak bata bestearen atzetik etorri ziren, eta zaleek amaiera lasai batekin gozatzeko aukera izan zuten.

Garaipen honegatik, Durango Gaursa Nissan taldea zuloatik irteten, eta sailkapenaren erdian kokatu da, zazpi punturekin.

Zapatu honetan, Uribealdearen kontrako euskal derbia jokatu du Oskar Astarloak zuzentzen duen taldeak.



# olgetan ludoteka



berbariko umesk  
olgetan



astelehenero  
17:00 - 18:30

azaroaren 2tik aurrera  
Plateruena Kafe Antzokian

MUSIKA

ARTEA

SUKALDARITZA

ESKULANAK

ZINEA

EUSKAL KULTURA

ANTZERKIA

IPUINAK

Astelehenak koloretatzeko aukera ezin hobea!

3 - 10 urte  
bitarteko umeei zuzenduta

## DATAK:

azaroak 2, 9, 16, 23 eta 30  
abenduak 14 eta 21  
urtarrilak 11, 18 eta 25  
otsailak 1, 8, 15, 22 eta 29  
martxoak 7 eta 14  
apirila 4, 11, 18 eta 25

BERBARO

Pinondo plaza, 1

48200 DURANGO

Bizkaia

946 201 918

[www.berbaro.eus](http://www.berbaro.eus)





# Liderra menderatuz lortu du Zornotzak lehen garaipena

Ametx Zornotzak laugarren jardunaldian, eta momentuko areriorik zailenaren kontra lortu du jaitsiera postutik irteteko balio dion garaipena



Ametx Zornotza eta Coviran Granada taldeen arteko partiduko une bat. Zornotza S.T.

## > SASKIBALOIA J.D.

Ametx Zornotzako zaleek nahi baino luzaroago itxaron behar izan dute denboraldiko lehen garaipena ospatzeko. Laugarren

jardunaldian heldu da, eta orain arteko areriorik zailenaren kontra: Coviran Granada. Talde andaluziarra Zilarrezko Adecco Ligako lider moduan zetorren.

Gainetik pisu handia kentzeko balio izan die joan zen asteburuan, etxean, 74-71 lortutako garaipenak. Liga hasiberria den arren, taldea jaitsiera postuetan

ikusteak ardura puntu bat sortzen duelako.

Granada EBA mailatik igotako taldea da, baina anbizio handiko helburuak ditu. Sasoi batean —beste izen batekin— ACB ligan aritu zen, eta orduko loria berreskuratzeko lanean ari dira. Horretarako, maila handiko jokalaria batu ditu. Ametx Zornotzak talde ahulagoen aurka ere jokatu du aurtan, baina sendotasuna falta izan zaio, eta boladaka bakarrik erakutsi dute iazko maila. Granadaren kontra, aldiz, hasieratik amaierara kontzentrazio eta intentsitate handiz jokatu zuten. Kondizio hori betetzen dutenean, Zornotzak ere baditu alde markatzen duten kalitatezko jokalaria. Horixe gertatu zen Coviran Granadaren aurka: Ander Garcia eta Ander Arruti jokalarien saskiratzeak, esaterako, erabakiorrak izan ziren azken laurdenean.

Garaipen horregaz, jaitsiera postutik irten da Mikel Garitano-nandiak zuzendutako taldea. Baina, ez dago atzera begira egoterik. Bihar, 18:30ean, berriro etxean jokatu du. Teorian, ari samurragoa da: Zaragozako Simply Olivar. Bi garaipenekin sailkapenaren erdian dago.

# Munduko txapelketa hurrago du Fradesek

Bigarren amaitu du Turkiako Iron Mana



Gurutze Frades ezkerrean, Turkiako podiumean. @gurutzeFrades

## > IRON MANA

2016an Hawaii jokatu den munduko Iron Man txapelketa parte hartu ahal izateko pauso sendoak ematen ari da Gurutze Frades iurretarra (Mugarra Triatloi Taldea). Joan zen asteburuan, bigarren tokian amaitu zuen Turkiako

Iron Mana, eta rankingean gora egiteko puntu dezente batu zituen. Puntu horiek, abuztuan Frantziako Vichy Iron Mana irabazi ostean lortutakoei gehitu behar zaizkie.

Fradesen hurrengo erronka Malasiako proba izango da, azaroaren 14an.

# Ariznabarreta eta Egia arerio barik Urkiolako proban

## > KORRIKA

Oier Ariznabarreta eta Uribarri Egia alde handiz nagusitu ziren, joan zen domekan, Urkiola Udazken Koloretan

mendi lasterketan. Gizonetan, Ariznabarreta durangarrak (1.36.59) ia zortzi minutu atzera zizkion Ekaitz Kortazarri: 1.44.19. Aitor Mimenza elorriarrak osatu zuen podiuma: 1.44.30. Emakumeetan, Uribarri Egia erraz nagusitu zen (2.11.15) Arantzazu Perez de Arenazaren eta Maite Zengotibangoaren aurretik.

# Aurreikuspenak gainditu ditu Durangoko Gau Krosak

